



sidrerías sidra guipuzcoa gipuzkoa

Sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko Elkartearen sorrera ekitaldia

10-04-2013 | Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea

Zer: Sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko Elkartearen sorrera ekitaldia.

Noiz: Apirilaren 15ean, goizeko 11:30etan.

Non: Donostiako Aquariumean.



Euskadiko Sagardogileen Federazioak eta sagardoaren eta turismoaren inguruko zenbait eragilek bultzata (udal, museo, garapen agentzia, fundazio...), sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko elkarte berri bat sortuko da. Helburua da sagardoaren kultura eta turismoan elkarlanerako gune bat osatu eta jarduerak, ekitaldiak, etab antolatzea.

2011n hasitako bidea indartu nahi da ekitaldi honekin. Orduan eman zituzten sagardoaren kulturaren munduko zenbait eragilek elkarlanerako lehenengo urratsak “Usurbilgo Mahaia” deiturikoan eta garrantzitsua ikusi da elkarlan hori iraunkortuko duen Elkarte bat sortzea.

Sorrera ekitaldia Donostiako Aquariumean egingo da, apirilaren 15ean, goizeko 11:30etan.